

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA



Ordered Study

Gure proiektua **Ordered Study** izena du. **Behar bereziak dituzten ikasleentzat** ikasteko metodologiak eskaintzen ditu. **APP** batean oinarrituta dago, **online deskargatzen dena**. Honetan, **ikasteko hainbat metodo** daude, ikasleek haien ikasteko eran laguntzeko.


Era berean, Ordered Study **ikasketen plangintzak** egiteko erabili daiteke; **azterketak, lanak** eta **ikastorduak** modu hoberenean planifikatzeko. Gure aplikazioa **Adimen Artifiziala** barneratuta ere badu. Honen bidez, ikasleek haien ikasketetan egindako **progresioa ikustarazi** dezakete.

EGILEAK: **Urko** Larrinaga Landaluce **June** Mosteirín Martínez **Naia** Martinez García
Alain Catala Solaguren **Bilal** Habba Akadar



Adimen Artifiziala

Adimen Artifiziala ere erantsi dugu **Ordered Study APP**-an behar hau modu hoberenean asebetetzeko. Funtzio honekin, ikasle bakoitzak duen **lan-metodologia pertsonalizatu** dezake eta denboran zehar izandako bilakaera ikustarazteko aukera ere bai ematen dio.



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Ordered Study ikasten ari diren gazteei bideratuta dago. **Ikasketan arazoak dituztenentzat** batez ere, euren ikasketak modu hobeagoan eramaten lagundu ahal izateko.

Hauek **8 urtetik gorako gazteentzat** zuzenduta dago, derrigorrezko hezkuntzak sortu ditzakeen zailtasunei modu **zehatz eta planifikatuagoan** laguntzeko.

8 +



FUNTSEZKO ELKARTEAK



Bost bazkide gara proiektua aurrera eramateko, hurrengo garrantziarekin lehenetsiz:



Urko

APP-aren diseinatzaile grafikoa eta kudeatzailea.



June

Bezeroarekiko harremanen kudeatzailea.



Naia

Publizitatearen kudeatzailea.




Bilal

Salmenten kudeatzailea.



Alain

APP-aren gainbegiralea.



DIRU-ITURRIAK



Aplikazioak instalatzerakoan sortutako dirua enpresaren diru-sarrera handiena izango da. Dohan deskarga daitekenez, nabarmentasun gehiago lortuko dugu merkatuan. Baina, ere badago **publizitatean** lortzen duguna.

APP honetan **Premium** aukera egoteak, etekin gehiago izatea ondorioztatzen du, guk eskaintzen dugun prestakuntza-etapa ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

Premium aukera lortzeko, ordainketa errepikari bat egin behar da, harpidetza baten bidez.



DESKARGATU

Google Play



Deskargatu

App Store



PREMIUM

KANALAK



Hainbat kanalen bidez merkatu segmentuari helaraziko diogu gure balorezko-proposamena. **Oinarrizkoena zuzena** izango da; **Interneten bidez** egindako salmentak, baita gure **komertzialek** gindakoak.



APP hau saltzeko erabiltzen dugun kanala **interneta** denez, **bezeroekin komunikatzeko** sarea erebai erabiliko dugu.



Gure balore-proposamena helarazteko, **iragarkiak** baita gure **berezko web-gunea** sortuko ditugu.



BEZEROAREKIKO HARREMANAK



Gure enpresaren harreman mota **automatizatu**a izango da, **aplikazioaren eta web-gunearen bitartez**, baita enpresak izango duen gmail kontuari posta-elektronikoak bidaliz. Bezeroen arretarako **zerbitzu pertsonalizatu**a ere badago non, **proiektu honen kideak**, bezeroen **zalantzak modu telematiko** batean argituko dituzte.

rdered
tudy
APP

Gmail

rdered
tudy
WEB

FUNTSEZKO BALIABIDEAK



Baliabide fisikoak

APP-a kudeatzeko erabilitako **sistema informatikoa**: ordenagailuak eta datu-basea.




Baliabide intelektualak eta giza baliabideak

- Urko**: Teknologia, informatikan eta diseinuan ezagutzak.
- June**: Publizitate munduan dokumentatua.
- Naia**: Pertsonenganako harremanetan abilezia.
- Bilal**: Konbentzitzen trebetasuna.
- Alain**: Kudeaketan ezagutzak eta trebetasuna.



Finantza-baliabideak

Gure **aurrezki pertsonalak** erabiliko ditugu proiektua hasteko. Hala ere, banku-finantzaketa bilatzea aukera bat izan liteke etorkizun batean APP-a hobetzeko.



FUNTSEZKO JARDUERAK



Ekoizpena

Gure funtsezko jarduera, eta oinarrizkoa proiektua aurrera eramateko, APP-aren bitartez **zerbitzu bat hornitzea** da. Ondorioz ez ditugu produkzio fisikoko jarduerarik.



Arazoak Konpontzea

Gure aplikazioa berriztatzailea izatearen eta bertsio **BETA** batean plazaratzearen ondorio nagusiena honen erabilpenaren inguruan **arazoak konpontzea** da. Hori dela eta, gure talde-lana astero hobekuntzak egingo ditu APP-an, **funtzio berriak sartuz eta aurretik zeudenak hobetuz eta zuzenduz.**





Plataforma eta sareko jarduerak

Plataforma eta sareko jarduerari dagokionez, hurrengo lehentasunarekin egingo dira:

- 1. Aplikazioa eguneratuta izatea.**
- 2. Web-guneko mantentze-lanak maiz egitea.**
- 3. Iragarkiak eta publizitatea berritzea eta kudeatzea.**
- 4. Jarduera berritzaileak sortzea proposamena sustatzeko.**

Momentuz ez dira zerbitzurik azpikontratatu, proiektua osatzen duten bazkideen artean lana banatzeko gaitasuna dagoelako.



KOSTUEN EGITURA



BETA



Hasierako inbertsioa

Gure proiektua **APP** batean oinarrituta dagoenez, honen sormenerako hasierako inbertsio bat egin behar da.

Gure aplikazioa hainbat ezaugarri izango dituenez, hasiera batean **BETA** bertsioan merkaturatuko dugu, oinarrizko ezaugarri batzuekin eta **froga moduan**.

Honen bidez gure proiektuaren **onarpena merkatuan** jakingo dugu, baita erabiltzaileek dituzten iradokizunak honen inguruan.

Aplikazioaren sormena \approx **100€**

Domeinua erostea, datuak gordetzeko zerbitzaria erostea eta bestelako gastuak software-a sortzeko.

Elkartearen eraketa \approx **100€**

Merkataritza-erregistroan inskripzioa eta notaritza gastuak.

GUZTIZKOA

\approx **200€**

Erabilitako dirua gure aurrezkietatik aterako da.

* Bat-bateko gastuak ere egon daitezke.



Kostu Finkoak

1. **APP-aren eta Webgunearen domeinuak hilero** ordaindu behar dira, hauek mantentzeko, aldaketak, berrikuntzak eta konponketak egiteko.
2. Gure proiektua aurrera eramateko beharrezkoa izango den **lan-taldea finantziatzeko kostuak**.
3. APP-a erabili ahal izateko, domeinua hilero ordaindu behar da.
4. Ekipo informatikoak mantentzeko **gastu elektrikoa**.

Ez ditugu gastu finko gehiagorik izango momentuz, APP-aren kudeaketa gure esku egongo direlako.



Kostu Aldakorrak

1. APP-an sortutako **datuak hodeian gordetzeko** kostuak hauen kantitatearen arabera izango dira.
2. Gure enpresa sustatzeko sortutako **publizitate-kanpainak** ere kontuan ditugu, online zerbitzu bat baita.

Beste kostu aldakorrik ez dago gure enpresa ekoizpen fisikorik ez duelako, baizik eta zerbitzu bat eskaintzen duelako.

